

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak datorren astelehenean EGA titulua lortzeko matrikula-epea zabalduko du

Euskararen gaitasun-agirirako lehen azterketa irailaren 29an izango da

Jueves, 14 de junio de 2012

Nafarroako Gobernuak 2012ko [EGA azterketako bigarren deialdi](#) irako matrikula-epea zabalduko duela jakinarazi du (euskararen gaitasun-agiria). Izena emateko aldia datorren astelehenean, hilak 18, zabalik izango da ekainaren 30era arte, biak barne, eta agiria lortzeko lehen azterketa irailaren 29an izango da.

La inscripción debe presentarse en el

Izen-ematea Hezkuntzako Departamentuan (Iruñeko Santo Domingo kalea, 8. zk.), edo Nafarroako Gobernuak Erregistro Orokorrean (Iruñeko Carlos III.a etorbidea, 2. zk.), aurkeztu behar da 08:30etik 14:30era, bai eta Info012 Navarra bulegoan ere (Iruñeko Orreaga etorbidea, 11. zk.) astelehenean ostiralera 08:00etatik 18:30era eta larunbatetan 09:00etatik 14:00etara, edo Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legean aurreikusitako beste edozein bide erabilita.

Izen-ematearekin batera, tasaren ordainagiria aurkeztu behar da, oro har 25 eurokoa izango dena. Lehen mailako familia ugariak 12,5 euro ordaindu behar dute, eta bigarren mailakoek, berriz, matrikula doan izango dute.

EGA tituluak egiaztatzen du pertsona batek euskararen jakite eraginkorra duela, eta titulu hori duenak haren ezagutza eskatzen den lanpostuetan lan egin ahal izango du. Agiria C1 mailako titulutzat jotzen da hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuaren barnean.

Azterketak

Azterketak hiru zati ditu. Lehengoan (atalase-azterketa) test-erako 90 galdera daude, eta haren helburua hizkuntzaren gaitasunak ebaluatzea da normalean erabilitako gramatikako galderen eta hizkuntza baliabideen bidez, bai eta ahozko ulermeneko azterketa bat eta irakurketako beste bat ere.

Bigarren azterketa bi ariketaz osatuta dago. Haietako batean, hautagaiek idatzi labur bat egin behar dute (gutuna, oharra edo antzeko bat eta gutxienez 150 hitz dituen) eta, bestean, luzeago bat (epaimahaiak proposatutako gaiari buruzko testu bat eta gutxienez 250 hitz dituen).

Lehen bi azterketak gaindituta, ahozko zatiaren txanda izango da. Bertan bost minutuko azalpen bat egingo da epaimahaiak proposatutako

gai baten inguruan laburpen bat eginez eta hautagai ezberdinen artean hamar minutuz eztabaidatuz.

Titulua lortzeko ezinbesteko baldintza da hiru azterketak gaindituta izatea.